

2002-04-23
kioskoa

Eneko Bidegain

Faxistak atarian


«Lurrikara», «sinestezina», «arris-kua», «EZ». Horrelako hitzak nagusi ziren Frantziako eta Europako egunkarien titularretan eta editorialetan. Jean-Marie Le Pen eskuin muturreko hautagaia lehendakari-tzarako hauteskundeetan bigarren itzulira iragateak sekulako mina eragin du. «Abstentzionisten ardurara» aipatu zuen *La Nouvelle République*-k. Aldi berean, hamasei hautagai aurkezteak «haien ustez herri honetan deus ez dabilela ongi» erran nahi du.

El Pais-ek «Jospin eta Chiracen diskurtso antzekoei» leporatu zien egoera hori. Kanpaina «segurtasunik ezaren» inguruan oinarritzea eta Jospin Chiracek «inposatu» gaira lerratzearekin azaldu zuen *Liberation*-ek, herenegungo zartakoa. Gai horretan, «kanpainarik egin gabe ere, Le Pen onena» zela gehitu zuen eta «segurtasunik ezaren gaiak bertez guztiak gorde» dituela salatu. *Le Figaro* ez da ados: «kanpainak gehiegi hitz egin du segurtasun ezaz? Erantzuna argi da». Egunkari eskuindar honek atera duen ondorioa da, «diskurtsoak errealtatetik urrunduak» zirela.

Bitartean, Frantziako ezkerrean noraezean dago bigarren itzuliri begira, *Sud Ouest*-ek dioen bezala, Le Pen-Chirac alternatibak bozkazale zati handi bat baztertzeko. *L'Humanite*-k «herraren eta bazterketaren diskurtsoaren oihartzuna handituko» dela iragarri zuen.

Bozka sistema dudana ezarri zuten egunkari askok. «Erreforma instituzionalaren premia» aipatu zuen *Liberation*-ek, bertze batzuek bezala. *Le Monde*-k Europako tesuinguruan ezarri zuen eskuin muturraren gorakada. Honen iritzi, etorkinen gorakadaren aurrean «integrazioa asmatu» behar da, eskuin muturraren bidea ixteko.

martintxo



hizpideak

Le Penen lurrikara

FN Fronte Nazionala eskuin muturreko alderdiko hautagai Jean-Marie Le Penek igandean Frantziako lehendakari-tzarako hauteskundeetan lortutako emaitzek herrialde horretako politikagintza astindu dute eta nazioartekoan kezka eragin.

Le Penek aurrea hartu zion PS Alder-

di Sozialistako hautagai eta Frantziako lehen ministro Lionel Jospini. Jospin bigarren bozalditik kanpo geratu zen, eta maiatzaren 5eko hauteskundeetan Jacques Chirac Errepublikako jarduneko lehendakariak —igandeko garailea— eta eskuin muturraren ordezkariak jardungo dute elkarren kontra.

Frantziako eskuin eta ezker tradizionalak bat egin dute Chiraci lagundu eta Le Penen garaipena eragozteko. Alderdi Sozialistak horixe adierazi zuen atzo: «Sozialistak eskuin muturraren kontrako militanteak izan gara beti», esan

zuen PSko idazkari Francois Hollandek. Komunistek ere hori egiteko deia egin diete jarraitzaileei.

Euskal Herrian ere Chirac nagusitu da, baina gainerakoan emaitzak ez dira Frantziakoan ispilu izan: Jospinek boto asko galdu ditu 1995eko bozetatik hona, baina bigarren lekuari eutsi dio, eta Le Pen laugarren hautagai bozkatuena baino ez da izan, Bayrou biarresaren atzetik. Joera aldaketarik ez, beraz, Ipar Euskal Herrian, ohi bezala eskuinari eman baitio botoa gehiengo handiak.



Jean Marie Le Pen, atzo, prentsaurrekoan.

Ordoñez Falcon Fundazioaren *La mirada ajena* argazki erakusketa Artiumen.



Zalantza gehiago Itoizko urtegiaren inguruan

Espainiako Auzitegi Gorenak berretsi du —hirugarren aldiz— Itoizko urtegia 510 metroko kotaren gainetik betetzeko debekua. Errefusatu egin ditu Nafarroako Gobernuak eta Espainiako Ingurumen Ministerioak paratutako helegiteak. Nafarroako Gobernuak, ordea, bere horretan jarraitzen du. Garrantzia kendu dio Auzitegi Gorenaren epaiari eta esan du proiektua legezkoa dela eta Auzitegi Konstituzionalak eta Entzutegi Nazionalak aurki zalantza guztiak uxatuko dituztela. Arrazoi politikoak medio gerta daiteke azkenean Nafarroako Gobernuak zirrikitaren bat aurkitzea bere proiektua aurrera ateratzeko; ezin du ukatu ordea orain arte epaiak proiektuaren kontrakoak izan direla. Horren lekuko da urtegiaren betetzea behin eta berriz atzeratu dutela.

Artiumen azken txanpa

Gasteizko Artium museoaren inauguraziorako gero eta egun gutxiago falta dira. Arte garaikideko pinakoteka zabaltzeko apailatutako lau erakusketak aurkeztu zizkieten atzo komunikabideei, eta gaur egingo da lehen inaugurazio ekitaldi soziala, arte eta kultura munduko eragileei aurkezteko eraikin berria. Inaugurazio ofiziala ostiral eguerdian izango da —Espainiako Juan Carlos I.a erregearen gonbidapenak protestak eragingo ditu ziur aski— eta arratsaldean izango dute herritarrek Artium bisitatze-ko lehen aukera, doan gainera. Esfortzu eta diru inbertsio handia behar izan da Artiumen proiektua aurrera ateratzeko. Beraz, museoak bere onena eman dezan komenigarria izango litzateke proiektuaren inguruko sentsibilitate ezberdinak kontuan hartzea, horien artean guna dinamiko, sortzaile eta irekia izatea, eta euskal arteari arreta eskaintzea eskatzen dutenena.

Egunkaria

Ohorezko Lehendakaria: Martin Ugalde

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: Joan Mari Torrealdai

Kontseilari Ordezkarria: Iñaki Uribe

Zuzendaria: Martxelo Otamendi

Gerentea: Mikel Sorozabal

Publizitatea: Idoia Sanz

Egoitza Nagusia: Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain Tel.: 943300222
Erredakzio faxa: 943300255-943590354 Publizitateko faxa: 943300707

Webgunea: www.egunkaria.com

Posta elektronikoa: egunkaria@egunkaria.com

Publizitatea: publi@egunkaria.com

Batzorde Parekidea: 72664 E Lege Gordailua: SS 800/90 I ISSN 1134-640X
OJDK IKUSKATURIKO HEDAPENA

ORDEZKARITZAK ■ Araba: San Antonio, 20-1 ezker. 01005 Gasteiz
Tel.: 945233872 Faxa: 945233873 Publizitatea: Tel.: 945131965

Nafarroa: Irabix Monasterioa, 45-13 esk. (Irritzi dorrea) 31011 Iruñea
Tel.: 948178073-79 Faxa: 948178077 Tel.: Publizitatea: 948176686

Bizkaia: Egia Jenerala, 3-behea. 48010 Bilbo Tel.: 944104046 Faxa: 944103715
Tel.: Publizitate Orokorra: 944701199-80 Publizitate Lokala: 944701114

Lapurdia, Nafarroa Beherea, Zuberoa: Pelletier 35,
64100 Baiona Tel.: 559593575 Faxa: 559257511